

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA

UDALBATZAK 2019KO OTSAILAREN 13AN EGINDAKO OHIZKO BATZARRAREN AKTA

BERTARATUAK:

IGOR ETXANIZ URRUTIA JAUNA (**EH Bildu**).- Alkatea
MARCELO TOTORIKA IBAIBARRIAGA jauna (**Aldatuz**)
JOSU MURGIA GLEZ. DE MENDOZA jauna (**Aldatuz**)
ALBERTO INTXAURRAGA GOTI JAUNA (**EAJ-PNV**)
GORKA BEITIA ZURINAGA JAUNA (**EAJ-PNV**)
JOSU LARRION MAESO JAUNA. (**EAJ-PNV**)

Arteako Elizatean, bi mila eta hemeretziko otsailaren 13an, Udalbatza batzartu zen, ohizko batzarrean, udaletxeko batzar aretoan, 12:30tan lehen deialdian, Igor Etxaniz Urrutia Alkatearen lehendakaritzapean, eta Xabier Irazabal Basabe jauna idazkaria izanik. Iker Atutxa jauna ezin izan da etorri.

Batzarra hasi baino lehen Alkateak horrela proposatuta, Udalbatzak AHO BATEZ onartu du, puntu berri bat aztertzea:

8.- 8M-RAKO arteako udalaren adierazpen instituzionala onartzea, behar bada.

1.- 2019-1-25KO OHIZKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BEHAR BADA.

2019-1-25ko Ohizko Osoko Bilkuraren akta onartu da.

2.- 7/19-17/19 DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak hurrengo Alkatetza Dekretuen berri eman du:

- 7/19tik 17/19rarteko Alkatetza Dekretuak

3.- ARTEA UDALEKO 2019KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTZEA, BEHAR BADA.

Alkatea jaunak 2019rako hurrengo Lan Eskaintza Publikoa aurkeztu du:

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA

“ARTEA UDALEKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA 2019

KARRERAKO FUNTZIONARIOA: Lanpostua

- Izena: Administraria
- Taldea: C-1
- Perfila: 3
- Destinu osagarria: 18
- Arloa: Administrazio Orokorra; Idazkaritza
- Plaza zenbakia: 1
- Aukeratze sistema: Lehiaketa-oposaketa librea
- Derrigortasun data: 2018-12-19

OFERTA DE EMPLEO PÚBLICO 2019 AYUNTAMIENTO DE ARTEA

FUNCIONARIO/A DE CARRERA: Puesto

- Denominación: Administrativo
- Grupo: C-1
- Perfil: 3
- Complemento de destino: 18
- Clasificación: Administración general; Secretaría
- Número plazas: 1
- Sistema de selección: Concurso-oposición libre
- Fecha de preceptividad: 19-12-2018

” Gaia aztertu eta gero Udalbatzak AHO BATEZ hurrengo erabakia hartu du:

1.- Goian agertzen den Artea Udaleko 2019ko Lan eskaintza publikoa onartzea.

2.- Erabaki hau, Arteako WEB orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

4.- 2019RAKO ARTEAKO UDALEKO LANGILEEN SOLDATA IGOERAREN EUDEL-EN PROPOSAMENA ONARTZEA, BEHAR BADA.

Alkate jaunak EUDELek proposatutako 2019rako langileen soldata igoera aurkeztu eta onartzea proposatzen du,. EUDEL-en proposamena hurrengo da:

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA



A la vista del tenor literal de este artículo, y en aras a aclarar sus posibles interpretaciones, EUDEL considera oportuno formular la siguiente **RECOMENDACIÓN** a los Ayuntamientos Vascos:

- En relación con el **párrafo primero del referido art. 3 Dos, incrementar**, con efectos **01/01/2019** las retribuciones del personal el máximo legal permitido, esto es, un **2,25%** respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018.
- En relación con el **segundo bloque del referido art. 3. Dos**, a fecha de hoy se desconoce el concreto porcentaje de incremento de masa salarial resultante y en tal sentido se estará a la concreción y aprobación correspondiente por Consejo de Ministros, todo ello sin perjuicio de que se puedan ir dotando, en el momento actual, las consignaciones presupuestarias oportunas. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 3. Dos, dicho incremento, en su caso, se añadiría con efectos 01/07/2019.
- En relación con el **último párrafo del referido art. 3. Dos**, y sin perjuicio de la autonomía municipal, **recomendamos** a los Ayuntamientos Vascos con situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2018* a que, en la medida de sus posibilidades financieras y presupuestarias, procedan a autorizar un incremento adicional del **0,3** de la masa salarial. Dicha cuantía, se distribuirá mediante las fórmulas legales que se refieren en el art. 3. Dos, último párrafo, o cualesquiera otras que resultaran de aplicación, todo ello en el marco de la autonomía municipal y negociación colectiva. En aquellos Ayuntamientos que no hubieran tenido la situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2018, la recomendación de EUDEL sería que tal incremento fuera del **0,25%** de la masa salarial.

Por medio de esta RECOMENDACIÓN, EUDEL pretende aclarar el alcance jurídico de este precepto legal a la vez que dejar constancia de su interés en interpretarlo, dentro de la legalidad, de la manera más favorable para el personal público, todo ello en aras a proseguir avanzando en la eficacia de las instituciones y la calidad de su entorno laboral, confiando en que todo ello permita allanar el camino para futuros avances en el marco de la negociación colectiva que debe tender a la consecución de un nuevo Acuerdo Regulador UDALHITZ.

EUDEL reitera la importancia de que el "Acuerdo UDALHITZ 2008-2010" sea cumplido en sus términos, ya que es en el cumplimiento real de los acuerdos alcanzados donde radica su principal garantía, sirviendo además como legitimación para la consecución de un nuevo acuerdo sectorial.

*En relación al término de "superávit presupuestario" se entiende que en nuestro ámbito debe ser interpretado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 11 de la *Ley Orgánica 2/2012 de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera* que regula la instrumentación del principio de estabilidad presupuestaria, todo ello sin perjuicio de posibles aclaraciones y/o instrucciones que puedan emitirse en relación al cálculo de este concepto desde los organismos competentes oportunos.

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA

1.- Goian agertzen den EUDEL-ek egindako Langileen 2019rako Soldaten igoserari buruzko gomendioa bere gain hartzea, bere osotasunean.

2.- Erabaki hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- Sindikatuen proposamean EUDELERi bidaltzea.

5.- ARTEAKO UDALEKO ERROLDAN 2019-1-1AN ERROLDATUTAKO BIZTANLEEN ZENBAKIA ONARTZEA, BEHAR BADA

2019ko urtarrilaren 1ean Arteako Biztanleen Udal Erroldan honenbeste jende agertzen zen erroldatuta, adierazten du Alkate jaunak:

Arteako Biztanleak 2019/1/1-an: **739** (370, gizonak; 369, emakumeak)

6.- “ERROTA ELKARTEA”, ELKARTE PUBLIKO BIHURTZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA, BEHAR BADA

Alkate jaunak dio **urtarrilaren 22an** ospatutako **Errota Fundazioko** patronatuaren **batzarrean fundazioa publiko bihurtzea** adostu zela. Aldaketa hori bideratzeko, Arratiako Udalek onikuspena eman behar diote erabaki honi. Hori dela eta, gaia aztertuta, Udalbatzak bozkatu egin du:

Gorka Beitia (EAJ-PNV): Patronatoak aldeko botoa eman nuen baina gero talde politiko moduan EAJ-k erabaki du, ez daukagula argi zertarako behar den aldaketa hau eta zer suposatuko duen, beraz, denbora gehiago eskatzen dugu eta beraz, bozketa honetan abstenitu egingo gara.

Alkatea: LKSri eskatu zitzaion txosten juridiko bat aldaketa honek ze onura eta kalte zuen jakiteko.

Gorka Beitia (EAJ-PNV): LKSri eskatutako txostena ez zen horretarako, baizik eta jakiteko Behargintza eraman ahal izateko zein bide zen egokiena, eta aukeretako bat Fundazio Publiko bihurtzea zela esan zuten.

- Alde: 3 (EH Bildu + Aldatuz)
- Kontra:
- Abstentzioa: 3 (EAJ-PNV)

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA

Beraz, Udalbatzak hurrengo erabakia hartu du:

- 1.- “Errota Elkarte” Fundazio Publiko bihurtzea onartzea.
- 2.- Erabaki hau Errota Elkarteari jakinarazi.

7.- ALKATEAK GAI EZBERDINEN BERRI EMATEA

Ez dago.

8.- 8M-RAKO ARTEAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, BEHAR BADA.

Alkate jaunak hurrengo adierazpen instituzioanala aurkeztu du:

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA

“2019 MARTXOAK 8 greba feminista babesteko ERAKUNDE ADIERAZPENA

laz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen Martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta emakumeak eragiten dituen desberdintasun molde ugari eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. *Emakumeok Planto – Nosotras Paramos* lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista salatzen.

Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarriztat jo zen, borroka eta aldarrikapen feministek bisibilizazio handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.

Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba deia luzatu du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista, guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo eremuan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardura kolektibotik abiatuta bizitza sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz. laz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.

Horregatik, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren motibazioa eta proposamenarekin bat egiten dugunez, Arteako Udalak adosten du:

- a. Mugimendu feministak deitutako grebara atxikitzea, eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.
- b. Herritarrei dei egitea mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.

Artean, 2019ko 13 Otsaiaren an”

Alkatea: Arteako Andra Taldea ados dago adierazpen honekin.

Gaia aztertu eta gero Udalbatzak bozkatu egin du:

- Alde: 3 (EH Bildu + Aldatuz)
- Kontra:
- Abstentzioa:

Beraz, Udalbatzak, hurrengo erabakia hartu du:

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA

1.- Goian agertzen den “8Mrako Arteako Udalaren adierazpen instituzionala” onartzea.

EAJ-PNV-k hurrengo adierazpen alternatiboa aurkeztu du, EUDELen onartutakoa hain zuzen ere.

“2019ko MARTXOAK 8 ERAKUNDE-ADIERAZPENA

BIZITZAK ERDIGUNERA!!!!

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako emakumeen lan etenaldi deialdiari eman zion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borroka atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, “Bizitzak Erdigunera” lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekariatatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta *Bizitzak Erdigunear* jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunear jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonen eta erakunde publikoen ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorrak izan daitezen. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enplegetako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Arteako Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

-Arteako Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.

-Arteako Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunear jartzeko.

2019KO OTSAILAREN 13KO OHIZKO OSOKO BILKURA

-Arteako Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.

”

Gaia aztertu eta gero, Udalbatzak AHO BATEZ, hurrengo erabakia hartu du:

1.- Goian agertzen den “EUDEL-en onartutako Martxoaren 8rako Adierazpen Instituzionala” onartzea.

- **KONTROLERAKO ZATIA:**

GALDE-ESKEAK

Ez dago.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, goizeko 12:48ak direnean,

A
l
k
a
t
e

j
a
u
n
a
k

b
u
k
a
t
u
t
z
a
t

e
m